




MARICHU

Zer dezu, nere maitia, negarti,
orren muzintsu kopeta t'arpegi?
Amak dantzan eragozten badizu,
anbat eskubide badu, Marichu!

Mulura irten-betanik ederra,
amaren magalondoko eperra:
dantzara irten bearrik aldezu,
zerez ederra bazera, Marichu?

Goizero, intza leyarra negarrez,
lorearentzat goxoro ezerrez:
amaren lore liliyan zaude zu;
t'onentzat maite-maitena, Marichu.

Ederra berez eztana, dantzari;
badabil iges-egin-da-amari:
amaren magal eztiya zapuztu?
atarramendu gaiztoa, Marichu!

Eten dagoen kerixak maiz arra;
neska dantzariyen gona, piltzarra:
lurak barren eutziten dun azichu,
ori bezela nai zaitut, Marichu!

DONOSTI